

# Sortzaile eskarmentudunak eta berriak bildu ditu Zinemirak

IRENE ELORZA

Hamar ekoizpen hartuko ditu Zinemirak, euskal zinemari eskaintako sailak. Aniztasun handiko saila izango da, gainera. Fikzioa eta ez-fikzioa, opera primak eta ibilbide luzeko zinemagileen lanak bildu dira aurtengo edizioan. Bestalde, Euskal zinemagintzan ibilbide luze bezain oparoa egin duen José María Lara ekoizleak jasoko du Zinemira saria.

Helena Tabernaren *Varados* dokumentalaren estreinaldiarekin abiatuko da Zinemira, gaur. Tabernaren hainbat film programatu ditu Zinemaldiak azken urteotan: besteak beste, *Yoyes* (Made in Spain, 2000), *La buena nueva* (Berri ona, Made in Spain, 2009) eta *Acantilado* (Zinemira, 2016). *Varados*-ek Grezian dauden errefuxiatuen eguneroko bizitza erakusten du.

Iban del Campok *Glittering Misfits* aurkeztuko du, bere lehen film luzea. Aurrez, Kimuak-en hautatu eta Zinemaldian proiektatu ziren haren bi film labur: *Dirty Martini* eta *Espedizio handia*. *Glittering Misfits*-en, New Yorkeko *burlesque* eszenan murgiltzen da *Dirty Martini* eta *Tigger!*-en eskutik.


Beste zuzendari baten lehen filmarekin jarraituko du Zinemirak. *Hiru uhinak* - *Les trois vagues* Loïc Legranden film luzea da. Hiru zinemagileek kondaira zahar bat iruditan kontatzeko erronkari aurre egiten diote.

Taberna, Del Campo eta Legrand Euskal Zinemaren Irizar saria lortzeko lehian izango dira. Gainera, urteko euskal ekoizpen nabarmenetako zazpi lan erakusteko tokia utziko du Zinemirak. Esaterako, sailean ikusiko da *Muga deitzen da pausoa*, Maider Oleagak Ikusmira Berriak egonaldi-programaren lehenengo urtean garatu zuen proiektuaren emaitza, Gijongo zinema-jaialdian estreinatu zena.

*Elkano*, lehen mundu bira animazio-filmak ere gaur hasiko du bere



Hiru uhinak.



Glittering Misfits.



Varados.

ibilbidea Zinemaldian. Ángel Alonsok zuzendutako bigarren filma da, animazio-film onenaren Goya sarirako hautagaia izan zen *El ladrón de sueños* (Ametsen lapurra, 2000) lanaren ondorengoa.

*El doble más quince*-k, Mikel Ruedaren film berriak ere lehiaketaz kanpo parte hartuko du sailean. Zinemiran ikusiko dugu, halaber, Juanmi Gutiérrezen azken filma, *Paseko txoriak*. Aurrez, beste hamar film aurkeztu ditu Gutiérrezek sailean. Aurtengo otsailean hil zen Gutiérrez eta 67. Zinemaldiak omenaldia egingo dio.

Bestalde, Bernardo Atxagaren izen bereko eleberrian oinarritutako filma, *Soinujolearen semea* ikusgai izango da datozen egunetan. Huelvako eta Nantesko zinema-jaialdietan aukeratu zuten Fernando Bernúesek zuzendutako filma.

*70 binlandens* Koldo Serraren hirugarren film luzea ere Zinemiraren parte izango da. Emma Suárez, Nathalie Poza eta Hugo Silva dira Sitgeseko zinema-jaialdian estreinatutako filmaren protagonistak.

Azkenik, *La pequeña Suiza* Kepa Sojoren bigarren film luzea ikusi ahal izango da Zinemiran. Euskal Herriaren erdian dagoen Gaztelako herri baten gorabeherak kontatzen ditu komedia horrek.

## Euskal ekoizpenak

Zinemiraren barnean dauden filmez gain, beste hainbat lanek osatzen dute 67. Donostia Zinemaldirako hautatutako euskal ekoizpena. New Directors, Zabaltegi-Tabakalera, Perlak eta Culinary Zinema, eta euskal zinemaren eta EITBren galetan ikusi ahal izango dira, hain zuzen. Haietako bederatzi (hau da, munduko estreinaldia Zinemaldian izango duten film luzeak) Euskal Zinemaren Irizar saria lortzeko lehiatuko dira.



## Euskal zinemagintzaren makulu sendoa

I.E.

Jose Maria Txepe Lara (Madril, 1948) ekoizleak jasoko du Zinemira saria. Hilaren 24an egingo dute Euskal Zinemaren Gala Victoria Eugenia, eta han jasoko du Zinemaldiak eta Ibaia eta EPE ekoizle elkarteek euskal zinemaren pertsona nabarmen baten ibilbidea aitortzeko ematen duten ohorezko saria.

Zinemagile hasiberriei emandako babes eta laguntzagatik nabarmendu da Lara; berarekin lan egin dute, besteak beste, Daniel Kalparsorok, Mercedes Alvarezek, Asier Altunak eta Telmo Esnalek. Hain zuzen ere, azken bi horien *Agur Etxebeste!* filma estreinatuko da sari banaketa ekitaldiaren ondoren. Ekoizleak harreman luzea izan du Asier Altunarekin eta Telmo Esnalekin; *Txotx*, *40 ezetz*, *Topeka* eta *Sarean* film laburren ondoren, alboan izan zuten beren lehen film luzea, *Aupa Etxebeste!* zuzendu zutenean ere.

Larak 1985ean hasi zuen zinemarekin harremana, foto finkoko eta kamera-laguntzaileko zereginetan. Beste teknikari batzuekin batera, Euskal Teknikari Zinematografikoek Elkarteak sortu zuen. 1987an, Jose María Lara P.C. ekoiztetxea sortu eta hamika film ekoiztu ditu orduetik. Azken hiru hamarkadetako euskal zinemagintzan funtsezkoa izan da ekoizle zereginetan.

PREMIOS  
**platin**  
DEL CINE IBEROAMERICANO

Nos une el TALENTO. Nos une la CULTURA.  
Nos une la FIESTA. Nos une el CINE.

www.premiosplatin.com

